




Tutoretza ez da...

- ✓ Ez da irakasgaietako arreta-orduak edo irakaskuntza tutoretza bezalakoa. Bi gauza desberdin dira. Bakoitzak bere jardun-eremua dauka.
- ✓ Tutoretza ez da zu kontrolatzeko. Zure tutorea ez dago egiten duzunari edo egiten ez duzunari begira egoteko.
- ✓ Ez da zure tutorearen egitekoa irakasleen aurrean zure jokabidea zuritzea, klasera ez joateagatik edo karreran ez inplikatzegatik.
- ✓ Tutoreak ez du zure ordeaz erabakitzen.



Eta nola jarzaitezke harremanetan zure tutorearekin?

Ikasturtearen hasieran jakingo duzu nor den zure tutorea. Mezu bat bidaliko dizute unibertsitateko helbide elektronikora.

NOLA AURKITU TUTOREA

Atariren bidez, **Ikasle ==> Zure irakasle eta gaiak atalean**


Gogoratu: elkarrekin ongi moldatzen ez bazarete, beste tutore bat eska dezakezu.

Universidad Pública de Navarra-
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Campus de Arrosadía
3103 Pamplona/Iruña
Teléfono: 948-169096
oficina.informacion@unavarra.es



Tutoretza plana



**lagundu, gidatu, orientatu,
bideratu, babestu,
jarraipena egin, erraztu...**

www.unavarra.es



Zer da tutoretza?

Nafarroako Unibertsitate Publikoak eskaintzen dizun zerbitzu bat da, ikaslearen eskubide bat, ez betebeharrat. **Irakasle bat jarriko dizute zure unibertsitateko aldian laguntzeko.** Bere xedea da unibertsitateak ezartzen dizkizun helburu akademiko, pertsonal eta profesionalak arrakastaz erdiesteko beharrezkoak dituzun tresnak eta laguntza ematea.

Tutoretza **trinkoagoa izango da lehenengo ikasmilian.** Azkeneko ikasmilian, aldiz, gradu amaierako lanerako orientabidean jarriko du arreta nagusia, ikerkuntzan hasteko edo laneratzeko. Masterreko ikasketetan, tutoretzaren xedea izango da zuri orientazioa ematea garapen profesionalean edo ikerketakoan.


Aldian-aldian elkarrizketa pertsonalak izango dituzu zure tutorearekin. Elkarrizketa horiek **ez dira nahitaezkoak.** Elkarrizketak izateko eskubidea duzu, ez dira betebeharrat. Zuk nahi izanez gero egingo dira, bai zure ekimenez, bai zure tutorearen ekimenez.

Tutoretzaren helburua da...

- ✓ Unibertsitateko girora **egokitzen** lagunduko dizu: Informazioa eskaintzen dizu NUPen dituzun zerbitzu, laguntza eta baliabideei buruz.
- ✓ Zure **ikasketa plana** egiten eta zure karrera akademikoak kudeatzen laguntzen dizu.
- ✓ Ikasketan aholkuak ematen dizkizu. Ikaskuntza-estrategiak, **ikasteko teknika** irakasten dizkizu eta laguntza berezia eskaintzen dizu azterketa eta ebaluazio garaian.
- ✓ Zure prestakuntza hobetzeko baliagarriak izan daitezkeen curriculumetik kanpoko edo unibertsitate zabalpeneko **jarduerak aukeratzen** laguntzen dizu.
- ✓ Informazioa ematen dizu **mugikortasun programei** buruz eta unibertsitatean bertan edo kanpoko enpresetan eta erakundeetan **praktikak** egiteko dauden aukerei buruz.
- ✓ Zure **denbora kudeatzen**, plangintza egiten eta zure kezka profesionalak aurkitzen laguntzen dizu.
- ✓ Hainbat **arazo akademiko konpontzen** laguntzen dizu. Ikasketetan erabaki egokiak hartzen laguntzen du, eta ez hartzen presazko erabakiak edo anegokiak gutxi pentsatutako irizpideen arabera.

Unibertsitatean hastean, zailtasun batzuk izaten dira

Unibertsitatean hastean, zailtasun batzuk izaten dira...



Besteak beste, unibertsitatea hezkuntza-erakunde gisa ez ezagutzea, ez eta bere funtzionamendua eta

arauak ere.

Ikasten ari zaren karreraren axaleko ezagutza, beka sistemari buruzko **informaziorik eza**, nahikoa ez diren ikasteko teknikak, kredituen ezagutza eta kudeaketa, ebaluazio jarraituari buruzko ezagutzarik eza, egutegi akademikoari buruzkoa, bizimodu berriari buruzkoa hiriz, lagunez eta abarrez aldatu bazara...

Eta nola laguntzen dizute tutoretzek?

Zure tutoreak ongi ezagutzen du nola funtzionatzen duten unibertsitateak eta egiten ari zaren ikasketek. Zure gaitasunak, interesak, motibazioak, balioak eta trebetasunak ezagutzen laguntzen dizu.

